



**bai**

ziurtagiridunen aldizkaria

# MARIE CLAIRE **SALABERRY**

“Ipar Euskal Herriko  
ekonomia suspertzen  
laguntzen ari gara”

ziurtagiriaren elkarteak



[baieuskarari.org](http://baieuskarari.org)

7. alea  
2011ko abendua



Rober Gutiérrez  
Zuzendaria

## HIZKUNTZA BALIATU

Enpresek erabiliko dituzten hizkuntzak hautatzeko garaian 3 faktorek eragiten dute nagusiki: legedia, merkatu-irizpideak eta entitate horretako erantzukizun soziala. Azken horri dagokionez, Europako Komunitateetako Batzordeak 2001ean argitara eman zuen *Liburu Berdean* ageri zen bezala, ardura soziala hartzeak betebeharrak juridikoetatik harago joan eta giza kapitalean, ingurunean nahiz solaskideekiko harremanetan ere inbertitzea esan nahi du. Hemen eta orain, enpresek erantzukizunez jokatzeko esan nahi du bezeroekiko harremanetan euskaraz aritzeko bitartekoak jartzea edo bertan lanean ari diren pertsonen lana euskaraz garatzeko aukera eskaintzea.

Oraindik ere ulergaitza egiten zait Euskal Herrian aritu nahi duten entitateek hizkuntzaren irizpidea aintzat ez hartzea eta erantzukizunez ez jokatzeko. Zergatik ote? Legedian zorrotz jaso beharko al litzateke? Merkatuak hala jokatzera bultzatzen dituenaren pertzepzioa al dute? Enpresak konturatu behar dira hizkuntzaren aldagaia "baliatu" ahal duten osagaia dela, hor baitute abantaila lortzeko ezaugarri esanguratsua. Enpresei eskatu behar zaie horretan berritzaileak izateko, jabetu behar baitira guretzat, kontsumitzaile eta erabiltzaileontzat, hizkuntza aldagai ezinbestekoa dela, produktuak eta zerbitzuak erakargarriagoak direla gure hizkuntzan eskainiz gero.

Enpresa guztiek urrats biziak emango balituzte...

### Argitaratzailea:

Ziurtagiriaren Elkartea  
Martin Ugalde Kultur Parkea  
20140 Andoain (Gipuzkoa)  
tel. 943 592148  
[www.baieuskarari.org](http://www.baieuskarari.org)



@baieuskarari



[www.facebook.com/baieuskarariziurtagiria](https://www.facebook.com/baieuskarariziurtagiria)



[www.baisarean.org](http://www.baisarean.org)

### Zuzendaria:

Rober Gutiérrez

### Kudeaketa eta erredakzio-taldea:

Ziurtagiriaren Elkartea

### Diseinua eta maketazioa:

BIT&MINA

### Argazkiak:

Ziurtagiriaren Elkartea, Gerediaga Kultur Elkartea, Grafik, Mobelteknika Ikasi S.A., Cristinaenea Fundazioa, Elduaen Hizkuntza Eskola

### Inprimatzailea:

Leitzarar

### Banaketa:

Ziurtagiriaren Elkartea

### Lege gordailua:

SS-497-2010

Aldizkari honetan publizitatea sartzeko idatzi [info@baieuskarari.org](mailto:info@baieuskarari.org) helbidera edo deitu 943 592148 telefono zenbakira.

# ERES THE BEST!



Nerabeen, Interneteko sare sozialen eta euskararen gaineko azterketa egin berri dute Soziolinguistika Klusterrak eta Kultur Kabia – Topaguneak. Bizkaiko hainbat eskualdetan, eta batez ere Bilbon, Kultur Kabia - Topaguneak gidatzen dituen aisialdi programen inguruan elkartutako nerabeak Tuenti sare sozial birtualean nola erlazionatzen diren aztertu dute; zehatzago esateko, harreman horietan hizkuntzen erabilera nolakoa den ikertu dute. Bi helburu nagusirekin egin dute ikerketa: batetik, aisialdi programetan sare sozialen bidez nerabeen euskararen erabileran eragitea; eta bestetik, hizkuntza-portaeretan sare sozialen bidez eragiteko esku hartzeen baliagarritasuna aztertzea.

Testuinguru hori kontuan izanik, Interneteko sare sozialetako hizkuntza erabilerari dagokionez, Soziolinguistika Klusterrak eta Kultur Kabia –Topaguneak egin duten ikerketaren ondorio nagusia da aztertutako nerabeek interneteko sare sozialen bitartez dituzten euren arteko

harreman informaletan, orokorrean, oso euskara gutxi erabiltzen dutela eta harremanen gehiengo handia gaztelaniaz izaten dutela.

Gaztelania darabiltenean, hizkera informala eta arauetatik kanpokoa da nagusi. Euskara erabiltzen den kasuetan, berriz, euskara batua eta ahalik eta zuzenena erabiltzen dute. Inoiz esplizituki aipatu gabe, zirikatzaile lanetan aritu den ikeritzaileak lortu du berekiko harremanetako hizkuntzatzat euskara finkatzea eta nerabeek berarekin duten praktika baldintzatzea. Kasu hauetan, nerabeek ez dute inolako komunikazio arazorik izan, hizkuntza-gaitasunari dagokionez, nahiz eta akats ortografiko ugari sumatu.

Ikerketatik ateratako beste ondorio bat da, euskara zoriontzeko, eskerrak emateko, agurtzeko eta maitasuneko mezuak adierazteko erabili dela gehien bat. Gainera, sarritan euskarazko formula estandarrak erabili dira horretarako (es-

“Nerabeek interneteko sare sozialen bitartez dituzten euren arteko harreman informaletan, orokorrean, oso euskara gutxi erabiltzen dute eta harremanen gehiengo handia gaztelaniaz izaten dute”

kerrik asko, maite zaitut, zorionak...), eta hortik ondoriozta daiteke euskararen erabilerak kasu horietan funtzio sinbolikoa betetzen duela.

Esamolde zehatz baten kasua bereziki interesgarria iruditu zaie Soziolinguistika Klusterreko eta Kultur Kabia – Topaguneako ikerlariei: “eskerrik asko” esamoldea, hain zuzen ere. Izan ere, “eskerrik asko” esan beharrean “eskerrik” soilik erabiltzen dute ikertutako gazteek. Kasu batzuetan, gainera “skerrik” idazten dute. Azterketa osoan zehar ikusitako euskarazko espresio baten aldaera informal bakarra izan da.

Euskaraz ez da ia inolako laburdurarik erabili. Freskurarik edo informaltasunik gabeko hizkeraren seinale da hori. Gainera, ikerketan ikusi da nerabeek ingelesezko zenbait esamolde tartekatuta dituztela, bai euskarazko eta baita gaztelaniazko jardunean ere. Esamolde horiek komunikazioari kutsu informala eta modernoa emateko asmoz txertatu direla dirudi. Adibidez: **Etoy todo happy; okei** edo **eres the best!**



Jarri gurekin harremanetan!  
www.elhuyar aholkularitza.net  
aholkularitza@elhuyar.com  
eta...




ELHUYAR  
aholkularitza

ELHUYAR Aholkularitza  
eraldatzeko giltza



euskararen  
normalizazioa



esamole eta gizonek  
jokatu berdintasuna



harritarren  
parte-hartzea

# XIBEROAKO HERRI ALKARGOAREN WEBGUNEARI AITORTZA

Xiberoako Herri Alkargoaren webgunearen kalitatea gorai-patu du AEC (Akitania Europa Komunikazioa) agentziak. Aitortza Akitaniako webgune publikoen kalitateari buruzko inkesta baten emaitza da eta Xiberoako Herri Alkargoaren webgunea lehen sailkatua izan da 8.000 eta 16.000 biztanle arteko kategorian, eta laugarren 105 herri elkargoen webguneak biltzen dituen sailkapen orokorrean.

Sailkapena egiteko AEC agentziak irizpide hauek hartu ditu kontuan: nabigatzeko eta informazioa aurkitzeko erraztasuna, eta lurraldeko biztanleen eguneroko bizitzarako baliagarria den informazioaren presentzia edo diseinua.

2011 urte hasieran webgunea berritu zuten. Diseinu berriak herri elkargoaren informazioa, turismo bulegoaren informazioa eta bertako enpresen eskaintzak biltzen ditu. Elebiduna da, eta besteak beste, aterpetxe turistikoek edota ibilaldietako zerbitzuen erreserbak egitea ahalbidertzen du.

Era berean, bideoak ikusteko aukera ematen du eta **flash code** delakoaren bidez, sakeleko telefonoetan Xiberoan dauden ibilbideen planoak ikus daitezke. Berrikuntzen artean, webguneak smartphone telefonoetarako bertsioa du.

<http://www.soule-xiberoa.fr/eu.html>



**XIBEROAKO HERRI ALKARGOA:**

Bai Euskarari Ziurtagiria "Zerbitzua euskaraz" maila.



Leitzaran Grafikak, S.L.  
Martín Ugaldé Kultur Parkea  
20140 Andoain (Gipuzkoa)  
tel: 943 303510 - fax: 943 593067



- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Inprimakiak



- Aurreinprimaketa
- Inprimaketa
- Koadernaketa
- Prozesu integrala

# “DENOK GARA GALIZIA”

Igaro berri da Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka. Aurtengo gonbidatua kultura galiziarra izan da eta **Anton Reixa** idazle, musikari eta zinegileak egin du irekierako hitzaldia. Benetan mamitsuak izan dira, irekierako diskurtsoan eta komunikabideetan egin dituen adierazpenak. Jarraian horietako batzuk jasoko ditugu.

## Nor da Anton Reixa?

“Galiziarekin eta nire hizkuntzarekin maiteminduta dagoen tipoa naiz eta uste dut horri esker askotan ez zaidala batere axola barregarri geratzea”.

## Zer da Galizia?

“Ez atzera eta ez aurrera dagoen tribu bat gara. Poeten, emigratzaileen, lurra-  
ren, itsasoaren eta metalaren langileak, errefuxiatu fisiko eta mentalak, ametsen eta izerdien esportatzaileak. Ez dugu inoiz inor inbaditu eta subkontziente indibiduala nahiz kolektiboa da gure ejertzito bakarra. Lanbroz eta udazkenez jantzitako subkontzienteak”.

## Nor dira galiziarrek?

“Historiatik bizirik atera direnak, Nazio Batuen Erakundean ordezkariak ez dutenak, ezta dominak jasotako astronautarik ere. Bizitzan eta munduan kokatzen gaituzten arteari eta kulturari temati lotuta daudenak”.

## Zer esan nahi du galiziar izateak?

“Galiziakoa izatea kasualitate biologikoa da, zorioneko aberia. Horregatik denok gara Galizia. Edonori gerta da-kioke. Zer erru dugu guk Galiziakoak

bagara? Ulertuak izatea eta errespetua merezi ditugu. Arraroak eta era askotakoak gara. Bakarrak eta solidarioak. Kosmikoki behartuta gaude modernoak eta aitzindariak izatera. Kosmopolitak, mundutarrak. Galiziakoa izaten jakiteko, mundu handia eduki behar da”.

## Armarik onena, sorkuntza

“Garai arraro eta zailak bizi ditugu. Ongizatearen estatua suntsitzen ari gara; kulturak eta kultur industriak berriz, jada ez dira nostalgiako parte ere. Horregatik sormenean oinarrituriko gure kultura-fabriketako lehengaiak babestu behar ditugu irmoki, eta garbi izan behar dugu daukagun onena gerok garena.

## Galizia eta Euskal Herria: gizakiaren ta-mainara egindako nazioak

“Gutxitutako herrialdea gara, baina aldi berean oso zabala. Munduan ibiltzen dakigun jendea gara. Globalizazioaren kontrapartidarik okerreana da nazio txikiak ezeztatu egiten dituela. Niri gustatzen zait pentsatzea, Galizia eta Euskal Herria, zorronez, herrialde txikiak direla, gizakiaren neurria egindako lurraldeak baitira, baina hori agian ez dago gaur egun modan”.

## Galizieraren garapena

“Gure hizkuntzak aurrera egin du nabarmen. Ni konplexurik gabeko galiziarren belaunaldikoa naiz eta Hizkuntzaren aldarrikapena bere egin zuen tradizio gallegistaren oinordeko naiz. Kultur arloan hizkuntzarentzat berriak ziren erregistroak geure egitea tokatu zitzaigun. Ni musika taldean 82an sartu nintzen eta lehenak izan ginen galizieraz kantatzen. Gaur egun Galizian 100 talde inguru daude galiziera kantatzen dutenak. Beraz, argi dago: aurrera egin dugu”.



## Galiziarren izaera

“Baliteke galiziarrok geurearen defentsarako adore handirik ez izatea, baina naturaltasun izugarria daukagu, nahiz eta askotan auto-estimua apur bat falta”.

## Nazio txikiaren irekitasuna

“Nazio txikiak daukagu aniztasunaren zentzurik handiena. Niri era guztietako artistekin lan egitea gustatzen zait, baina egia da, Euskal Herrian konplizitate berezia topatu dudala. Gutxitutako hizkuntzetan bizi garenok modernitate, irekitasun eta unibertsaltasun zentzu handiagoa dugu”.

## Galiziar kultura eta euskal kultura

“Galiziar kulturak eta euskal kulturak geure arteko konplizitatea metatu behar dugu eta argi izan behar dugu gure lana auto-estimua kolektiboan eta unibertsaltasunean oinarritzen dela. Adimen irekia daukagu eta horrek mendealdeko kulturaren historia kontatzeko aukera ematen digu, eta ondorioz, kultura espainiarraren endogamiatik askatzekoa”.



## Marie Claire SALABERRY

Herrikoa S.A. ko koordinatzailea

Marie Claire Salaberry Herrikoa S.A. hobekien ezagutzen duen pertsona da, ez baititu pasa alferrik hogeita hamar urte idazkari, kontu-egile eta enpresen koordinatzaile gisa. Orduz geroztik, Iparraldean lanpostuen sorreran laguntzak bideratzen aritu da. Esku-hartze horren emaitza da lauogeigarren hamakaz geroztik sortu diren 350 lantegiak eta 2.500 lanpostuak. Herrikoak Baionako Euskal Herriko Merkataritza eta Industria Ganbaran duen bulegoan hartu gaitu Salaberryk, eta solasaldian elkarte, Iparraldeko enpresa-sarea edo euskara izan ditugu hizpide, besteak beste.

**Herrikoa S.A.k 30 hamar urte bete ditu. Ipar Euskal Herrian ibilbide luzea egin duzue, baina Hego Euskal Herrian zuen jarduna ez da horren ezaguna. Azalduko zeniguke, labur bada ere, zein helbururekin sortu zen Herrikoa?**

Funtsean gure egitekoa Iparraldean lanpostuak sortzea zen, eta helburu bera mantentzen jarraitzen dugu. Horretarako diru-laguntzak ematen ditugu; enpresak sortu nahi dituztenek bere egitasmoa aurkezten digute, eta egitasmo hori aztertu ondoren, eta gure irizpideen arabera egokia dela iruditzen bazaigu, enpresa berri hori sortzen laguntzen dugu.

Erabakiaren izpide nagusia lanpostue-

na da, aurkezten diguten egitasmoak zenbat lanpostu sortuko dituen.

**Banketxeek maileguak ematen dituzte halako egitasmoetarako. Baina Herrikoa ez da banku bat, ezta?**

Ez, ez. Bankuek maileguak ematen dituzte, eta guk kapitalean parte hartzen dugu. Gure proiektuaren ardatza honakoa da: lantegiak sortzen eta azkartzen laguntzea herritarren dirua enpresen eta enpleguaren alde ezarri. Gure berezitasuna da enplegua sortzeko dinamika horretan akziodunen ekarpen ekonomikoak bideratzen ditugula lantegi berriak zabaltzeko. Gaur egun 4.500 akziodun dauzkagu.

**Zein ekarpen egin dio Herrikoak Ipar Euskal Herriko enpresa-sareari?**

Ipar Euskal Herriko ekonomia suspertzen lagundu dugu, hori ezin du inork ukatu. Hogeita hamar urteren bueltan 10 milioi € isuri ditugu 350 lantegi berri abiarazteko, eta gutxi-asko, 2.500 lanpostu berri sortu dira Herrikoaren esku-hartzearekin.

**“Gure proiektuaren ardatza honakoa da: lantegiak sortzen eta azkartzen laguntzea herritarren dirua enpresen eta enpleguaren alde ezarri”**

# “Iparraldeko eta Hegoaldeko enpresen arteko elkarlana oso positiboa da euskara sustatzeko”

**Nolakoak dira zuen egitasmoan parte-hartzen duten enpresak?**

Edozein jarduera ekonomiko laguntzea da gure xedea, baina batez ere zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa berriak gerturatzen dira gurera. Hala ere, azken urteotan ingurumenaren esparruan egitasmo asko jaso ditugu; Internet bidezko salmentak bideratzen dituzten enpresen gorakada ere nabarmena izan da. Turismora bideratutakoak ere zaku berean sartuko nituzke. Iparraldean industria sektorea oso ahula da eta halako gutxi izaten ditugu. Beste ezaugarri bat langile kopuruarena da; gehienak lantoki txikiak dira, oso gutxi dira 5 langile baino gehiago dituzten enpresak.

**Krisiak bazter guztiak jo dituen honetan, pentsatzekoa da Herrikoa bezalako egitasmo batean krisiaren ondorioak nabarmenak izango direla. Krisiak nola baldintzatu du zuen lan-jarduna?**

Krisiak guztia zailtzen du; gure kasuan, esate baterako, akziodunen kopuruan islatzen dela esango nuke. Iparraldean 300.000 biztanle inguru bizi gara, eta gure akziodunak 4.500 baino ez dira. Honekin ez dut adierazi nahi krisia dela hazkundea oztopatzen duen arrazoi bakarra, baina pentsatzekoa da ekonomiaren susperraldia ematen bada, gure akziodunen kopuruak gora egingo duela. Beste parametro batean, aldiz, esango nuke krisi garaian gure aktibitateak gora egin duela; garai batean banketxeek maileguak ematerakoan malgutasun handiagoa azaltzen zuten. Gaur egun ez dute arriskatzeko, eta are gutxiago krisi garaian. Herrikoak ez dauka arriskatzeko beldurrik.

**Krisiaren ondorioz egitasmo berri gehiago jasotzen dituzuela diozu. Herrikoak**

**eskaintzen dituen zerbitzuak eskatzera gerturatzen direnen perfila aldatu al du krisiak?**

Baietz esango nuke. Langabezia dau-denak ohartzen hasiak dira lana bilatzeko dinamika aldatu beharra daukatela. Hau da, batean eta bestean ate joka ibiltzeko garaiak amaitu dira, eta norberak sortu behar ditu lanpostuak. Zentzu horretan, geroz eta gehiago dira bere enpresa, normalean langile bakarrekoa, sortzeko proiektuarekin gerturatzen zaizkigun gazteak. Momentuz bukatu dira 15 lanpostu sortzeko helburuarekin aurkeztzen zizkiguten egitasmoak.

**Hari beretik tiraka, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko parekotasunik antzeman duzuen jakin nahiko nuke.**

XXI. mendean gaude eta gaur egun gure bulegora etortzen diren emakumezkoen eta gizonezkoen portzentajea antzekoa dela esango nuke, ez dago alderik. Gure hastapenetan kontuak bestelakoak ziren, apenas etortzen baitzen emakumezkoen. Zentzu horretan bilakaera nabarmena izan da.

**Herrikoaren Zuzendaritza Batzordean emakume bakarra dago, ordea; hama-sei gizonezko eta emakumezko bat.**

Frantziako Gobernuak parekotasuna bermatzeko legea atera du eta epe laburrean gure Zuzendaritza Batzordean aldaketak izango direla aurreikusten dut, emakumeen parte-hartzea zabala goa izango da. Normaltasun osoz eman beharreko aldaketa behar du izan.

**Epe motzean, zein dira Herrikoak etorki-zunerako aurreikusten dituen erronkak?**

Epe laburrera ez daukagu erronka berezirik, gure asmoa enpleguak sortzen laguntzea da. Krisiak krisi, gure erronka aurrera egitea da, eta orain bankuek la-

guntza gutxiago ematen dituztela kontuan hartuta, ez dut uste lan falta izango dugunik. Epe luzeago batera, behar bada, bi erronka azpimarratuko nituzke: batetik, akziodun kopurua igotzea, eta bestetik, harremanak sendotzea. Baina azken hori ez da batere erraza izango.

**Elkarriketa batean irakurri dut zuen hastapeneko beste helburuetako bat Hegoaldeko Kutxekin lan egitea zela. Lortu al duzue?**

Ametsa izaten jarraitzen du. Kutxa eta BBK gure akziodunak dira, hastapenetik. Eta Spri, Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, orain dela hamar bat urtez geroztik akzioduna da. Baina ez dugu asmatu bide hori jorratzen. Eta etorkizunean harremanak areagotzea zaila ikusten dut; ikuspegi ekonomiko batetik begiratuta ere, Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko jauzia aldera ezina da. Ez dut gaizki ulertzerik nahi, ez delako kritika bat, baina iruditzen zait Hegoaldeko instituzio eta erakundeen begietara Iparraldekoak “anaia txikiak” garela.



“Gaur egun gure bulegora etortzen diren emakumezkoen eta gizonezkoen portzentajea antzekoa dela esango nuke, ez dago alderik”

**Euskararen alorrera etorritz, Herrikoak Bai Euskarari Ziurtagiria du. Zergatik erabaki zenuten ziurtagiria eskuratzea?**

Besteak beste euskara gure hizkuntza delako, euskaraz bizi eta lan egin nahi dugulako, eta gure akziodunei zor diegulako. Eta helburu hori gauzatzeko Ziurtagiria erreminta interesgarria dela sinisten dugulako.

**Zein balio ematen diozue euskarari?**

Erabatekoa; gure aldizkaria, buletina, webgunea –[www.herrikoa.com](http://www.herrikoa.com)– eta abar euskaraz eta frantsesez dauzkagu. Gu euskaldunak gara, eta gure arteko harremanak –bulegoan hiru langile aritzen dira– euskaraz dira. Euskaldunon artean ere normaltasunez, naturaltasunez aritzen gara euskaraz. Baina zoritxarrez, egia da kalean geroz eta gutxiago hitz egiten dela euskaraz, eta

“Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu genuen euskara gure hizkuntza delako, euskaraz bizi eta lan egin nahi dugulako, eta gure akziodunei zor diegulako”

errealitate hori gizarteko esparru ezberdinetara zabaltzen doa.

**Gaur egun, Iparraldeko enpresek euskararen presentzia eta erabilera kontutan hartzen dute? Euskarari toki bat ematearen aldekoak dira enpresetako arduradunak?**

Gure datuen arabera, % 40 euskaraz aritzeko gai da. Errealitatea bestelakoa da, ordea. Badira euskaldunak zuzendaritza karguetan, baina hemen ere krisiaren ondorioak pairatzen ari gara eta enpresetako lehentasunak bestelakoak dira. Euskara bigarren maila batean dagoela esango nuke.

**Ipar Euskal Herriko eta Hego Euskal Herriko enpresen arteko lankidetzak ematen direla badakigu. Euskararen presentzia areagotzea errazten duela uste duzu?**

Nabarmenki, eta elkarlanak oso positiboak dira euskara sustatzeko; harreman horiek mantentzeko eta sakontzeko bideak topatu behar ditugu. Euskarak batzen ditu Hegoaldeko eta Iparraldeko enpresak. Bitxia da, baina, elkar ulertzeko euskara dute komunikazio bide.

(fr)

Herrikoa a aidé à la création de 2.500 emplois

Marie Claire Salaberry est la personne qui connaît le mieux Herrikoa, car elle y a passé 30 ans en tant que secrétaire, comptable, et gestionnaire: « L'objectif d'Herrikoa est la création d'emploi en Ipar Euskal Herria. Pour cela nous mettons en place des subventions. Les personnes qui veulent créer leur entreprise nous exposent le projet et, après analyse, et s'il respecte les critères d'Herrikoa, nous débloquons les subventions. »

Durant toutes ces années, l'association a aidé à promouvoir l'activité économique d'Ipar Euskal Herria. « Personne ne peut nier le travail que nous avons fait. En effet, depuis 30 ans nous avons déboursés 10 millions € pour la création de 350 entreprises et 2.500 postes emplois ont été créés grâce à Herrikoa »

(es)

Herrikoa ha sido parte activa en la creación de 2.500 nuevos puestos de trabajo

Marie-Claire Salaberry es una de las personas que mejor conoce Herrikoa, no en vano lleva desempeñando funciones de secretaria, contable y coordinadora de empresas más de treinta años. Es ella quién nos ha explicado el objetivo de la asociación: “Ayudamos a crear empleo en Iparralde. Nos presentan un proyecto de empresa. Tras analizarlo, y si bajo nuestro criterio entendemos que es viable e interesante, ofrecemos ayudas económicas para facilitar el nacimiento de la empresa”.

Desde su creación, Herrikoa ha ayudado a incentivar la economía de Iparralde. “Es una labor que nadie puede cuestionar. En estos treinta años hemos inyectado alrededor de 10 millones de € para emprender 350 nuevos proyectos de empresa y crear alrededor de 2.500 puestos de trabajo”.



# LABORANTZA BIOLOGIKOAREN BIDEZ LANPOSTUAK SORTUZ

Biharko Lurraren Elkartea (BLE) Ipar Euskal Herrian laborantza biologikoan diharduten laborarien elkarte da. Gaur egun 4 langile eta 150 kide ditu (teknika biologikoak erabiltzen dituzten laborari konbentzionalak eta laborari biologikoak).

Zuberoa, Baxe Nafarroa eta Lapurdiren artean, 140 etxalde aritzen dira laborantza biologikoan. Etxalde guztien % 3 osatzen dute horiek, eta kopurua txikia izan arren, urtero 20 laborari konber-

titzen dira ekoizteko molde horietara. Bestalde, Iparralde osoan 15 denda biologiko daude eta aurten soilik bost berri ireki dira kostaldean. Pirinio Atlantikoe-tan, lagunduak diren instalazioen % 20k tailer biologiko baten proiektua dute eta familiatik kanpo egiten diren plantatzeen erdia *bio* moldean egiten da.

Ikerketen arabera diru-irabazi eta balio erantsi berdinarekin, laborantza biologikoak lan gehiago sortzen du. Adibidez, baratze-zaintza biologikoan 3 hekta-

reatan 2 lanpostu sortzen dira edo mahastizaintza biologikoan 4 lanpostu 8 hektareatan. BLEko ordezkari Thomas Ergiren arabera, krisi eta langabezi garai honetan laborantza biologikoa lan emaila dela adieraztea azpimarragarria da: “Ingurumenari dagokionez berriz, laborantza mota honek uren kalitatea hobeto errespetatzen du laborantza tradizionalak baino, ez baita lurra lantzeko produktu kimikorik erabiltzen. Gainera, ekoizpenaren bioaniztasun aberatsagoa mantentzen da”.

**BIHARKO LURRAREN ELKARTEA:** Bai Euskarari Ziurtagiria “Euskararen bidean” maila.

## GRAFIK: EZBERDINAK BAINA BERDINAK

Grafik Sarea Kooperatiba Elkartea komunikazio grafiko eta diseinuaren ikuspegi anitzetan murgiltzen den plataforma da. Hamarkada bateko esperientzian oinarrituta, enpresaren egitura moldatzea erabaki zuten. Orduz geroztik, hiru taldek osatzen dute sarea: *Gune*, espazio korporatiboak lantzeko; *Pro*, produktuak, kamisetak (KOT marka) eta izerditakoak diseinatzeko; eta *Ikono*, esparru ezberdinetan –arte, kultura, altzarigintza, unibertsitatea, arkitektura edo moda– erakunde-nortasun eta marka-proiektuetan aritzeko.

Talde bakoitza independentea da, baina espazio eta baliabideak konpartitzen dituzte “prozesuak eta lan-tresnen erabilerara hobetuz, jardun ezberdinen arteko sinergiak sortuz eta elkarlanak ahalbideratuz”.

Informazio gehiago: [www.grafiksarea.com](http://www.grafiksarea.com)



**GRAFIK SAREA KOOPERATIBA ELKARTEA:** Bai Euskarari Ziurtagiria “Zerbitzua euskaraz” maila.

# MOBELTEKNICA IKASI: ATENTZIOA ETA AHOLKULARITZA

Mobelteknica Ikasi S.L. enpresa 30 urte betetzear da. 1983. urtean sortu zen Azkoitian, eta bertako zuzendari Nora Sudupek aditzera eman digunez, berriki lehen belaunaldi aldaketa eza-gutu du. Bitxikeria moduan, bertako hamahiru langileak 25 eta 30 urte arteko emakumeak dira, enpresan ez dago gizonezkorik.

Urola bailarako ikastetxe, udaletxe eta enpresei bulegoko materiala saltzera bideratu zuten negozioa laurogeigarren hamarkadaren hasieran. Gaur egun, bulego-materialaz gain “papera, informatika, kontsumigarriak, garbiketa gaiak, eskulanetako materiala edo jostailu didaktikoak aurki daitezke Azkoitiko Juin Txiki industrialdean daukaten egoitzan, “2.000 metro koadroko instalazio moderno batean biltzen dira gure biltegi, logistika eta bulegoak”, azaldu digu zuzendariak.

## Jostailu didaktikoak

Jostailu didaktikoak nabarmendu nahi izan ditu Sudupek, “Gipuzkoa mailan ez baitago jostailu didaktiko edo hezigarririk banatzen duen beste enpresarik”. Halako gaiekin bereziki sentsibilizatuta

daude Mobelteknican, eta Euskal Herriko hainbat fundazio eta gobernuz kanpoko erakunderekin elkarlanean produktuak behar handiagoko lurraldeetara eramaten dituzte doan; besteak beste, Perura, Boliviara, Haitira, Txilera, Senegalera, Marokora, Dominikar Errepublikara, Kubara edo Nigeriara.

Aholkularitza eta atentzioa dira Mobelteknica Ikasi S.A.ko beste bi ezaugarri nagusiak, “gurea bezalako enpresengatik ezberdintzen gaituzten ezaugarriak dira”. Enpresako zuzendariaren iritziz, bulegoko materialaren alorrean salmentan aritzen diren enpresa gehienek produktu berak saltzen dituzte. “Eroslea produktu jakin batzuetara ohitu egiten da eta inertziak erosten ditu, eta kasu askotan benetako beharrik gabe. Bulegoko materialari, orokorrean, ez zaio atentzio berezirik jartzen”.

Adibide moduan Petrus226 grapagailua jarri du: “azkeneko 28 urteotan gehien saldu den bulegoko materiala da. Gaur egun, bestelako grapagailuak egonda ere, horixe da gehien saltzen dena. Arrazoia: halako erosketetan ez dela behar besteko arretarik jartzen”.

Mobelteknica Ikasik joera hori antzeman zuen, eta egoera irauli nahian “atentzioaren eta aholkularitzaren” aldeko apustua egin zuen, “eta tratu horri esker gure bezeroak beraien beharretara egokien moldatzen diren materialak erosten dituzte. Gure bezeroei arreta pertsonalizatua eskaintzen diegu eta antzematen dute”, amaitu du Nora Sudupek.

Informazio gehiago: [www.ikasi.com.es](http://www.ikasi.com.es)



**MOBELTEKNICA IKASI, S.L.:** Bai Euskarari Ziurtagiria “Euskararen bidean” maila.

**OOH! PARI TXARTELA**

Zenbatekoa zeure esku. 15 eurotik hasita  
Gastatu saldoa zeure erritmora  
Gastua informazio gunetan kontrolatu

ekar

# INGURUMENA

## IKUSPUNTU URBANO BATETIK

Cristina Enea Fundazioak ingurumen eta jasagarritasun baloreen kontzientziazioaren eta sentsibilizazioaren alde lanean dihardu Donostian. Horretarako hiru tresna baliatzen ditu: Ingurumen Baliabideen Etxea, Jasagarritasunaren Behatokia eta Urgull mendiko Natur-txokoa. 2012tik aurrera, gainera, Uliako Natur Interpretazio Zentroa abiaraziko dute.

Iker Aranberri Fundazioko komunikazio arduradunak azaldu dizkigu erreminta bakoitzaren ezaugarriak. Ingurumen Baliabide Zentroa “Fundazioko gune neuralgikoa da, oinarria. Bertatik jasagarritasun orokorraren aldeko norabidealdaketa sustatu nahi dugu”, esan du.

Jasagarritasunaren Behatokitik Donostiako ingurumen adierazleak neurtu eta “hiriko jasagarritasuna kudeatzeko ahalegina egiten dugu, eta urtero-urtero jasagarritasun txostena argitaratzen dugu”.

Urgull mendiko Natur-txokoa haur eta gazteei bideratutako gunea da. Udan zabaltzen da soilik, eta bertan tailerrak eta eskulanak antolatzen dituzte “bisitan datozen gazteak ingurumen eta jasagarritasun baloreetan hezteko helburuarekin”.

Eta datorren urtetik aurrera, orain arteko eskaintza Uliako Natur Interpretazio gunearekin osatuko dute. Ibilbideak, panel informatiboak, Interpretazio zentroko erakusketak, bisita gidatuak... “bertako ugaztunak eta hegaztiak herritarrei gerturatzeko helburuarekin”.

### Helburuko xedea definituta

Iker Aranberri komunikazio arduradunak xede taldeak definitzerakoan, hiru talde bereizi ditu: ikasleak, “hezkuntza eskaintza zabala daukagu, Haur Hezkuntzatik hasi eta Masterrak emateraino”; hiritar soilak, “hitzaldiak, erakusketak, irteerak eta abar antolatzen ditugu beraientzat”, eta azkenik, profil teknikoko langileak, “multzo honetan ingurumenaren eta jasagarritasunaren esparruan aritzen diren langileak sartzen ditugu”.

Eta argi utzi nahi izan du, Cristina Enea Fundaziotik ingurumenaren eta jasagarritasunaren baloreak transmititzeko ahalegina egiten dutela, “baina beti ere ikuspuntu urbano batetik. Naturak eskaintzen dizkigun baliabideak mugatuak dira, eta horiek ahalik eta hobekien

kudeatu behar ditugu, eta gure kasuan, kudeaketa hori nola egin bideratu behar dugu”. Zentzu horretan, Cristina Enean dagoen **Kontsumo arduratsuaren gela** erakusketa iraunkorra bisitatzera animatu ditu gure irakurleak.

Informazio gehiago nahi izanez gero: [www.cristinaenea.org](http://www.cristinaenea.org)



# IKASTARO ETA HIZKUNTZA AUKERA ZABALA

Berrogei urte baino gehiagoko ibilbidearen ondotik, hizkuntzen irakaskuntzan eta kudeaketan erreferente bihurtu da Elduairen Hizkuntza Eskola. Hizkuntzak ikasteko aurrez aurreko saioak ez ezik, online ikastaroak eta enpresentzako diruz lagundutako ikastaroak ere ematen ditu. Eskola bera arduratzen da, gainera, diru-laguntzak kudeatzeaz. Hizkuntzak irakasteaz gain, itzulpengintza eta interpretazio zerbitzuak ere eskaintzen ditu Elduairenek.

Hizkuntzek duten garrantziaz aspaldi jabetu zen Elduairen Hizkuntza Eskola. Hala, gizarteari hainbat hizkuntza ikasteko aukera emateaz gain, enpresaren gestioan bertan hizkuntzen kalitatezko kudeaketa egiten saiatzen da, barnera begirako jardunak kanpora begirakoan ere isla baitu. Horrexegatik, Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu berri du, “Zerbitzua Euskaraz” maila lortu duelarik.

Elduairen Hizkuntza Eskolan bederratzi hizkuntza irakasten dira eta bertako bezerorik nahiz ikaslerik gehienak gipuzkoarrak dira. Elduairen jakitun da bezero horiek euren hizkuntzan harteak duen garrantziaz, eta era berean, uste du hizkuntza eskola batek horien aurrean eredugarria izan behar duela gizarte elebidun bateko hizkuntza normalizazioarako bidean.

## Ikasleen beharretara egokitua

Elduairenen ezaugarri nagusia da bere eskaintza uneoro ikasleen behar eta lehentasunetara egokitzen duela. Horretarako hamaika zentro ditu zabalik gaur egun: Donostian bi (Antiguon eta Intxaurrondon), Lasarten, Urnietan, Villabonan, Tolosan lau, Alegian eta Beasainen. Instalazio horiek guztiek zerbitzu zabala eskaintzeko aukera ematen diote Elduaireni.



Elduairen Hizkuntza Eskolarentzat oso garrantzitsua da irakasleak natiboak izatea, maila aurreratuetakoak batez ere. Taldeak osatzeko gutxienez hiru pertsona eta gehienez zortzi behar izaten dira. Ikasleen beharrei erantzutea helburu hartuta, ordutegi zabala eskaintzen du Elduairenek: astelehenetik ostiralera goizeko zazpiketatik gaueko hamarrak arte, eta baita larunbat goizetan ere.

Bestalde, orain arte azaldutako filosofien ardatzari loturik, taldea sortzen bada edozein hizkuntza irakats dezake Elduairen Hizkuntza Eskolak. Momentu honetan italiera (2011-2012 ikasturteko hizkuntzarik eskatuena), frantsesa, alemana, ingelesa, txinera, korearra, portugesa, euskara edota gaztelania irakasten ditu.

## Ikastaro eskaintza zabala:

Akademietan ematen diren ikastaroez gain, ikasleen behar, lehentasun eta ikuspegieta oinarriturik, Elduairenek eskaintza zabala du:

- Enpresei zuzendutako ikastaroak, hizkuntza teknikoak lantzeko.
- Eskolaz kanpoko ikastaroak ikastetxeetan.
- Udako ikastaroak.
- Atzeritarrentzat gaztelania ikastaroak.
- Errefortzu taldeak. Ikasleek eskolan lantzen dutenaz gain, eskolaz kanpo ere hainbat irakasgai lantzeko ikastaroak dira: matematika, fisika, historia, ekonomia, euskara, ingelesa, latina, etab.

# ELDUAIEN, Cambridgeko azterketen antolatzaile

2011ko urriaren 10etik **ESOL ES098 Cambridge Zentroa** da Elduaien, hau da, Cambridgeko maila guztietako azterketak (Young Learnersetik CPera bitartekoak, BEC eta TKTz gain) antolatzeko **barne zentro antolatzaile lizentzia** lortu du eta bertako ikasleei Elduaien Hizkuntza Eskolako zentroetan azterketak egiteko aukera emango die horrek.

## ELDUAIEN HIZKUNTZA ESKOLA:

Bai Euskarari Ziurtagiria "Zerbitzua euskaraz" maila.

Cambridgeko azterketen antolatzaile izateko lizentzia lortzeko hamar urteko bidea egin behar izan du Elduaienek. 2004. urtetik aurrera ISO 9001 kalitate sistemaren arau guztiak jarraitu ditu, eta horrez gain, "computer based" azterketak antolatzeko Cambridgeko lizentzia ere eskuratu du.



**elduaien**  
hizkuntzaeskola • academiade idiomas

(fr)

## La gestion qualitative des langues

L'« Ecole de langues Elduayen », s'est depuis longtemps rendu compte de l'importance des langues dans cette société. En plus d'enseigner plusieurs langues, elle s'efforce de gérer les différentes langues au sein des entreprises : le travail fait en interne se reflète à l'extérieur.

C'est pour cela qu'« Elduayen Hizkuntza Eskola » vient d'obtenir le Label Bai Euskarari en se plaçant directement au niveau Zerbitzua euskaraz. Et qu'elle est depuis le 10 octobre dernier, Centre Cambridge ESOL ES098.

(es)

## Calidad en la gestión lingüística

En la Academia de Idiomas Elduaien son conscientes de la importancia de las lenguas en una sociedad cada vez más plural. Es por ello que, además de ofertar clases de multitud de lenguas, la empresa ha incorporado un ambicioso sistema de calidad en la gestión lingüística de las actividades que desempeña tanto de puertas a fuera como de puertas a dentro.

Por ello, acaba de acreditar el nivel "Zerbitzua Euskaraz" (Servicio en euskera) del Certificado Bai Euskarari y el certificado ESOL ES098 Cambridge.

**bidera**  
zerbitzuak

Banaketa-Komunikazioa  
Itzulpenak-Aholkularitza  
Publizitatea-Dei zentroa



**berria**  
taldea

## ZIURTAGIRIA BIZKAIA ZABALTZEKO APUSTUA EGINGO DUGU

Ziurtagiriaren Elkartean 2012 urterako zehaztu ditugun erronken artean, lehen-tasuneko izango da Bai Euskarari Ziurtagiria Bizkaian zabaltzea.

Gaur egun 1.452 entitatek daukate Ziurtagiria; eskualdeka, Gipuzkoa eta Nafarroa dira Ziurtagiri gehien dituztenak, 537 (% 37) eta 363 (% 25) hurrenez hurren. Ipar Euskal Herrian, 246 (% 17) daude; Bizkaian, 203 (% 14) daude; eta azkenik, Araban, 103 (% 7) –1.452ak osatzeko Irlandakoa falta da–.

Bizkaiko datuak hobetzeko aukera egon badago, eta Gipuzkoa zein Nafarroako errealitatera gerturatzeko abagunea

daukagula sinetsita gaude. Helburuak, ordea, merkatua arakatu eta esfortzu berezia egitea eskatzen digu.

Eta horretan gabilta. Irailaz geroztik Bizkaian egin beharreko lan komertziala zehaztu dugu eta lehenengo bisitak egingen hasi gara: besteak beste, Bizkaiko Foru Aldundiarekin, Bilboko Udalarekin eta beste hamazazpi udaletako ordezkariekin bildu gara. Era berean, beste hogeita hamar udaletako arduradunekin jarri gara harremanetan.

Helburu hori gauzatzeko komertzial lana egingo duen pertsona kontratatu eta bulegoa zabaltzeko dugu Deustuan.

## BULETIN ETEKTRONIKOA, GURE KOMUNIKAZIO ESTRATEGIAN BESTE URRATS BIZI BAT

Ziurtagiriaren Elkartearen beste urrats bizi bat eman du bere komunikazio estrategian Bai Euskarari Buletin elektronikoarekin, hamabostean behin notizia berriekin eguneratuko dena.

Azken urteotan Ziurtagiriaren Elkarteko komunikazio estrategia hobetzeko ahal-egin berezia egingen ari gara. Informazioaren gizartean egoki komunikatzeko duen garrantziaz jabetuta, atzera bueltarik ez duen bidea hartu dugu. Teknologia berriek eskaintzen dituzten erremintak bide-lagun, 2009a geroztik webgunea eguneratu dugu, Ziurtagiridunen Aldizkaria argitaratu, [www.baisarean.org](http://www.baisarean.org) bloga sortu, sare sozialetan gure presentzia in-

dartu edo komunikazio kanpainak diseinatu ditugu.

Komunikazio kanalak ezberdinak izan arren, helburu bera dute: Bai Euskarari Ziurtagiriaren, Ziurtagiria duzuen entitateen eta euskararen inguruko berriak zabaltzea. Buletinak, aldizkariak bezalaxe, bozgorailu izan nahi du, eta bide batez, Ziurtagiriaren Elkartearekin identifikatzeko bidea erraztu, Ziurtagiridunak talde eta proiektu baten kide sentitzeraino. Azken finean, Bai Euskarari duten enpresa, saltoki eta era guztietako entitateen promozioa egiteko eta Ziurtagiriaren Elkarteko bazkideen arteko lankidetzak sustatzeko beste erreminta bat sortu nahi izan dugu.

## BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA JASO DUTE 184 ENPRESA ETA ENTITATEK

Ziurtagiriaren Elkarteak Bai Euskarari Ziurtagiriak banatzeko bost ekitaldi antolatatu ditu azken hilabeteetan. Guztira, 184 enpresa, saltoki eta era guztietako entitatek eskuratu dute Ziurtagiria Azkoitian, Barañainen, Malerrekan, Gernikan eta Laudion egindako banaketa ekitaldietan.

Horietatik 15ek eskuratu dute “Zerbitzua eta lana euskaraz” maila; beste 58k, “Zerbitzua euskaraz” maila, eta gainerako 111k “Bidean” maila. Nabarmentzekoa da, era berean, 184 Ziurtagiridun horietatik 25 berriak direla: Azkoitiko Ambato okindegia, Andueza moda, Bizkargi musika eta dantza eskola, Dean taberna, Koxka Kafetegia, Leire Oroz hartz klinika, PSOE taberna, Truck arropa denda eta Uria sukalea; Malerrekako Artlepo, Arrate Estetika, Ainhoa ile-apaindegia, Ogi-Berri, Sasoi Eraikuntzak, Zergalan eta Iturengo Herriko Ostaketa; Barañaingo Beatriz Cubillas Barricart Farmazia, eta Bildu, Izquierda-Ezkerra eta NaBai 2011 talde politikoei; Gernika-Lumoko Biklik Komunikazioa enpresak eta Audioko Al-gitech, Autocares Sobron, Grafikisarea eta Osaketa.



# MINTZODROMOAK: URRATS BIZIAK, ARABAN

Ziurtagiriaren Elkarteak bost Mintzodromo antolatu ditu azken hilabeteen; lehenengo laurak Gasteizen, eta azkena, Laudion. Ekimen honen helburua euskararen erabilera sustatu eta hizkuntza ikasten ari direnen artean jarrera aktiboa bultzatzea da.

Gasteizko Foru Plaza euskararen arnagune bilakatu zen azaroaren 28an. Guztira 400 gasteiztarrek parte hartu zuten ekimenean; horietako gehienak ikasleak ziren, baina tartean, Eusko Jaurlaritzako, Gasteizko Udaleko talde politikoetako, euskalgintzako eta kultura zein kirol arloko aurpegi ezagunak elkartu ziren.

Bosgarren Mintzodromoa, berriz, Laudion izan zen. 50 bat lagun elkartu ziren,

eta Gasteizen bezala, launakako taldeetan Eguberriak, teknologia berriek gure gizartean daukaten eragina, edo euskaraz bizitzeko ahaleginean topatzen dituzten erraztasun eta zailtasunak izan zituzten hizpide.

Ziurtagiriaren Elkarteak “oso positiboki” baloratu du ekimena, helburua beteta ikusi baitu, hots, euskaraz aritzeko aukera gutxi duenari horretarako modua ematea eta ohituraz, euskara gutxi egiten duenari motibazioa areagotzea.

Mintzodromo hauek, Ziurtagiriaren Elkarteak bultzatzen ari den “Bai Euskarari, Urrats Biziak” ekimenaren barruan kokatzen dira eta Arabako Foru Aldundiaren, Gasteizko Udalen eta Audioko Udalen laguntzarekin antolatu dira.



## ZIURTAGIRIAREN ELKARTEAK ERALANEN GARAPEN TALDE BAT GIDATUKO DU

Ziurtagiriaren Elkartearen zuzendariak, Rober Gutiérrezek, eta Kutxa Bankeko hizkuntza kudeatzaileak, Imanol Mineurrek, EraLanen barruko garapen talde bat gidatuko dute.

EraLan Soziolinguistika Klusterraren proiektu bat da, lan munduko euskararen erabilera ikertzen duena, eta hainbat erakunderen arteko lankidetzaren ondorio dena, besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundia, Gipuzkoa Donostia Kutxa, Emun Koop. E., Elhuyar Aholkularitza, Ahize-AEK, Artez

Euskara Zerbitzua, Bermeoko Udala.

Elkarlanean abiatutako egitasmoaren helburua da jendareko aurkezpen eta prentsaurrekoetan hizkuntza-lidergoa lantzea, gizarte mailako liderrengan (politikari, kirolari, enpresari, kulturegile, etab.) eragiteko eta hizkuntza portaera egokiak sustatzeko.

Informazio gehiago: [www.soziolinguistika.org/eu/node/5334](http://www.soziolinguistika.org/eu/node/5334)



TALLERES  
**MITXELENA**, S.COOP.

Eziago poligonoa, 21 • Hernani, Gipuzkoa  
Tel.: 943 552 512 / 552 516 Fax: 943 552 816  
[info@talleresmitxelena.com](mailto:info@talleresmitxelena.com)  
[www.talleresmitxelena.com](http://www.talleresmitxelena.com)



urrats biziak!

Zorionak!

Urte berri on!



@baieuskarari



www.facebook.com/baieuskarariziurtagiria



www.baisarean.org

ziurtagiaren **elkartea**



baieuskarari.org